

## Baketik-eko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

# Pequeña Miss Sunshine

## Fitxa tekniko

JATORRIZKO IZENBURUA: Little Miss Sunshine.

URTEA: 2006.

IRAUPENA: 101 min.

HERRIALDEA: USA.

ZUZENDARIA: Jonathan Dayton, Valerie Faris.

AKTORE-ZERRENDA: Greg Kinnear, Toni Collette, Steve Carell, Alan Arkin, Beth Grant, Paul Dano, Abigail Breslin, Bryan Cranston.

EKOIZPENA: Fox Searchlight Pictures/Big Beach.

## Sinopsia

Hovertarrak familia liskartia dira: aitonak kokaina esnifutzen du eta hitz gordinak botatzen ditu, aitak arrakastari buruzko ikastaroak ematen ditu porrot izugarriekin, ama ez da iristen denera, osaba bere mutil lagunak utzi duela-eta bere buruz beste egiten saiatu ondoren osatzen ari da, seme nerabeak Nietzsche irakurtzen du eta ez du hitzik egiten, eta Olive alaba txikiak -betaurreko handiekin eta nahiko lodia- ederra izan nahi du. Olive 'Miss Eguzki-izpi txikia' lehiaketa lehiatsu batean parte hartzeko gonbidatzen dutenean Kalifornian, Hoover familia osoa elkartuko da berarekin joateko.

## Gaia

### Mugak, desberdintasuna eta porrota vs arrakasta

**Mugak.** Istorioak gizakion izaera mugatua eta hau onartzeko beharra deskribatzen ditu errealitatean kokatzen gaituelako, frustraziorako prestatzen gaituelako eta horrela bakarrik bilakatzen delako aukera.

**Desberdintasuna.** Desberdintasunaren defentsa sutsua, nor bere buruarekiko fideltasuna eta horrek dakarren gatazka onartzeko ahalmena agertzen dira pelikulan.

**Porrota vs arrakasta.** Errealitatearen ikuspegia ez galtzearen eta bizitzaren porrota edo arrakasta baloratzeko nora begiratu jakitearen garrantzia kontatzen du pelikulak.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzia puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikusi eta entzutea iradokitzen dizugu:

**...barrura begira.** Lehen pertsonan esanguratsu egiten zaigun horri buruz hausnartzea, eta gure bizitzan bertan sortarazten dizkigun galderei buruz. Helburua ez da betirako erantzunak bilatzea, sortarazten dizkigun erresonantziei so egitea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edo eta familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea.

**...ez bakarrik buruarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak edo aurrez ditugun ideiak albo batera uztea, pelikulak kontatzen digun harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**eta denbora baten buruan, berriz pentsatzea...** Egun batzuetara pelikulak uzten digun arrastoari adi egon. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartzen duen protagonismoak bat egitearen ondorioa da.

## Zenbait galdera...

### ...pelikula ikusi aurretik

- Mugei buruz: Posible al da gure oztopoak eta mugak aukerak bilakatzea? Nola?
- Porrotari buruz: Akatsa, krisia, gabezia edo nahi duguna ez lortzea, porrota bezala ikusten al dugu?
- Desberdintasunei buruz: Nor bere buruarekiko fideltasunak, sarritan, dakarren gatazka onartzen al dugu?

### ...pelikula ikusi ondoren

- Hoover familiako aitaren diskurtsoa zertan datza? Zein dira bere argudioak? Zerk ahalbidetzen du bere aldaketa pelikularen amaieran?
- Zerk bereizten ditu hitz egiten ez duen semea, aitona, ama eta haurra? Nolakoak dira? Nola egiten diete aurre gertatzen zaizkien gauzei?
- Nola hartzen du pertsonai bakoitzak edertasun lehiaketa? Zerk ahalbidetzen du aldaketa pertsonai bakoitzean?

Begoña Gomezen laguntzarekin.

Cine para **vivir y convivir**

# Pequeña Miss Sunshine



baketik

Bake zentroa. Gatazken lantze etikia

Centro por la paz  
Elaboración ética  
de conflictos

baketik

Bake zentroa. Gatazken lantze etikia

Centro por la paz  
Elaboración ética  
de conflictos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Elakidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Bakimena eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

943-251005

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)